



## ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOAK

Ekonomiaren eta Enpresen Garapeneko Sailaren **Energia Planaren Atalak 20E/2021 EBAZPENA** argitaratu zuen, apirilaren 6koa, Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez toki entitateentzako laguntzen deialdi bat onesten baita, 2021erako, efizientzia energetikoa bultzatzeko, energia berriztagarriak inplementatzeko eta mugikortasun elektrikoa sustatzeko (NAO, 2021eko maiatzaren 6a) argitaratu zuen

Etxauriko Udalak laguntza eskatu zuen Etxauri udalerriko Udaltitulartasuneko eraikinetan instalazio fotovoltaiko partekatu bat jartzeko, barne-sareari konektatua.

Bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren azterketaren ondorioz, 13 modulu jarri ziren ikuztegiko erabilera anitzeko biltegiko teilatuan, 5,2kWp instalazioa osatzen dutenak.

Instalazio horrek **8.154,11 €**ko kostua izan zuen Etxauriko Udalarentzat, eta horietatik **3.146,37 €** finantzatu dira lehen aipatutako laguntzarekin.

Udal honek, aurrekoetan adierazi duen bezala, energia berriztagarrien eta energia alternatiboen aldeko apustua egiten du. Biodibertsitatea eta paisaia zaintzearen alde gaude, eta eredu energetiko banatua eta bidezkoa garatzearen alde.

Proiektuaren memoria Udalaren webgunean kontsulta daiteke:  
[www.etxauri.eus](http://www.etxauri.eus)

Etxaurin, 2021eko abenduaren 17an

  
Idora Aritzala Etxarren



Etxauriko alkatea